

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Hornitzaileak dira sortu nahi diren enpresa eta negozio guztien euskarri nagusia; izan ere, bete beharreko funtzioa edozein izanda ere, guztiek lortu beharko dute beren lana nola edo hala egin ahal izateko behar den "lehengai".



Hori dela eta, gure bazkide eta hornitzaileak guk salduko ditugun produktuena izango dira, azken finean, guk salduko ditugun produktuak ez dira gureak propioak izango, beste enpresenak baizik. Beste modu batera esanda, beste edozein supermerkatu bat bezalakoak gara neurri batean; dena den gure supermerkatuek oinarri izango duten euskal nortasunagatik egingo dugu apustu, hemengo produktuak salduz, hau da, ZERO KILOMETROKO produktuak salduz.

Sarriegui, Goenaga, Kaiku, Galparsoro, Otaegui, Eceiza, Olañeta, Ameztoi. Baita ere Mondelēz International eta P&G.

Bestalde, garrantzitsua iruditzen zaigu makinaria aipatzea. Makinek ekoizpenean duten garrantzia eztabaida ezina eta izugarria da; izan ere, prozedurak areagotu eta bizkortzen dituzte, lanak hobetzen dituzte, gauzak merkatzen dituzte, ahalegin nekagarriak aurrezten dituzte, gizona produkzioaren jabe egiten dute, merkataritza errazten dute, kontsumoa zabaltzen dute eta behar asko asetzen dituzte.

Gure supermerkatuko makineriari dagokionez, *Trablisa* enpresan konfiatuko ditugu autokobrantzarako makinak erosteko, *Frigería Hostelería* enpresan erakusgailuentzat, *IPS seguridad* enpresan segurtasun kamerak erosteko eta *Brander* enpresan supermerkatu guztia montatzeko.

